



BALIO PROPOSAMENA ARRILUZE

Gure gurdia egina dago erosketa azkarragoa eta errazagoa izan dadin. Gu ziur gaude jendeak denbora gutxiago duela erosketak egiteko. Hori da gure gurdiaren funtzio nagusia, eta horretarako diseinatuta dago. Gure gurdia merkatuko arinena izateaz gain, adimenduna da eta hori da denbora gehien aurrezten duena. Horretarako, osagai hauek erabiliko ditugu:

<https://lolamarket.com/blog/noticias/has-visto-ya-nuestro-video/> link honetan agertzen da zenbat denbora egoten gara erosketak egiten. Denbora guzti honen barruan, zenbat

dira erosketa handiak? Eta zenbat 10 produkto baino gutxiko erosketa azkarra? Gurdi honekin guztietarako erabilgarri daiteke, inteligentzia sistema hautazkoa delako.

Gure enpresa, ingurumenaz arduratzen dena, oso bideratuta dago horretan. Asko inporta zaigu kutsatuko ez dituen eta lehendik dagoena baino kutsadura handiagoa sortuko duen produktu eta materiala sortzea. Beraz, gurdien material nagusia plastikoa birziklatua da.

Horrez gain, pantaila adimentsua du. Zergatik pantaila bat? Galdetu egin dezakezu; erosketa errazteko eta supermerkatuan produktuak bilatu beharrik ez izateko prestatuta dago. Berak bilatu eta eramango zaituen sistema bat du. Produktuak non dauden aztertuko du sistema inteligentearekin eta ondoren ibilbide azkarrena hasiko du gurdiak. Gainera, atzerritarra bazara, ez dago arazorik! Hizkuntza asko ditu eta hiztegiarekiko mila milioi hitz ditu ere bai, bezeroarekiko komunikazioa perfektua izan dadin egunaren amaieran.

Baliteke pantailarekin oso ondo moldatzen ez den jendea egotea; beraz, ahots-adimenarekin arazoak konponduko ditugu. Mundu guztiak daki hitz egiten, eta tresna honekin sistema eragilearen erabilera erraztuko dugu. GPS-aren ahots bezala, ibilbidea azalduko du. Distantziak eta kurbak abisatuko ditu gurdiarekin batera joateko.

Erabiliko dugun beste teknika bat da produktuak eskaneatzea gurdian sartzen direnean. RFID teknologiarekin lortuko dugu helburua. Horrela lortuko dugu produktuak hartzen ditugun bitartean ticketa azkarrago egingo dugu eta horrela ordaintzerakoan errazago eta azkarrago izango da.

Gurdia instalatutako duen pantailari esker, erosketa azkarragoa eta eraginkorragoa egin dezakegu. Gure erosketa-zerrenda etxetik eramateko aukera ematen digu, eta klik bakar batean gurdian integratutako Samsung tabletara bidaltzeko aukera. Zerrenda bidalitakoan, gurdiak azkarrago egingo du ibilbidea, nahi diren produktuak dauden puntuetan geldituz. Produktu horiek gurdian sartzean, erosketa-zerrendatik kenduko dira. Pantailak publizitatea



BALIO PROPOSAMENA ARRILUZE

jartzeko eta deskontuak eta eskaintzak eskaintzeko aukera du erabiltzaileak horiek erabil ditzake. Kontu elektroniko bat sor dezakezu supermerkatu iritsi aurretik eskaintzak lortzeko, eta aurreko erosketen ordainagiriak ikusteko aukera duzu.

IZENA:

SMART **Y** GURDI

SLOGAN: erosketa azkarra? smartYgurdiaren beharra